

IZENBURUA: Irakurtzen eta idazten ikasteko ordenagailua erabiltzeko metodologia bat.

EGILEA: Joan-Anton Sánchez i Valero

LANTOKIA: CEIP Pompeu Fabra (Vallirana)

DESKRIBAPENA:

Abiapuntutzat hartzen dira ikasleen interesa sortzen duten eskolako gauzak. Eskolan erabiltzen diren gauzen irudiak margotu edo koloreztatu egiten dituzte ikasleek Paintbrushez, hain zuzen ere, programan landuko diren hitzei dagozkien irudiak.

Irakasleak lagundurik, ikasleek irakurri eta idatzi egingo dituzte landu nahi diren hitzak, hauek aldeztu aurretik soinu grabagailuarekin grabatu dira eta el Windows-eko Blokean idatzi dira.

Aipaturiko gai informatiko hauek prestatu ondoren, irakaslea CLIC 2.0. programaz baliatu da iharduera sorta zenbait sortzeko: informazio iharduerak, osagarriak elkarlotzeko iharduerak, puzzleak...

Amaitzeko, azken autoebaluazio gisa, iharduera edo ariketa sortak egingo ditu ikasleak. Eta irakasleak lantze bakoitzean sortzen den txostenean lortu diren ondorioak jasoko eta aztertuko ditu.

OHARRAK:

Artikulu honetan aurkezten dugu irakurtzen eta idazten ikasteko ordenagailuaz baliatzeko metodologia bat da. Eskolako gauzak izeneko jardura sorta ez da berez metodologia horren adibide bat besterik. Jardura hauek prozesu baten ondoren ebaluaketa gisa erabili beharrean, irakaste-ikaste prozesuko jardura gisa erabiliz gero zenbait arazo sor litezke, batez ere hitzen idazkeraren inguruko jardurei dagokienez.

BEHAR DIREN BITARTEKOAK:

- 386 SX ordenagailua edo hobe, soinu txartela, bozgoragailuak eta mikrofonoa duena.
- Windows 3.1 edo berriagoa, soinu grabatzailea eta libreta aplikazioak dituen.
- Clic 2.0. programa.
- Eskolako gauzak izeneko programa ikasgelan erabili ahal izateko, komenigarria da 256 edo 64K kolore izatea.

NORENTZAT DAGO EGINA:

Hezkuntza bereziko eta Haur Hezkuntzako haurrentzat, eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko lehen mailako haurrentzat.

APLIKAZIO METODOLOGIAK:

Artikulu honetan aurkezten dugun metodologia hezkuntza bereziko premia larriak eta iraunkorrak dituzten eta eskola arrunt batean integratuak dauden ikasleekin jardunda sorturikoa da.

Ondoren aipatuko diren entorno eta egoeretan erabil daiteke:

- Informatika gela batean edo Eskolaurreko 4 edo 5 urtekoen gela arruntean edo Lehen hezkuntzako lehen mailan. Jarduera txokoetako batean koka daiteke, gainerako ikasleek beste jarduera txoko batzuetan diharduten bitartean egiteko.
- Ikastetxe arruntetan dauden Hezkuntza Bereziko Premiak dituzten ikasleekin ere erabil daiteke Lehen Hezkuntzako 2. Mailatik aurrera. Ikasle hauen kurrikulumaren aldaketa eta egokipenaren hasera gisa har daiteke, eta hauek jarduera hau burutzen duten bitartean, beste ikasleek beste era bateko iharduerak egin ditzaketenean.